



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

2017/02/15

Bizkaiko Batzar Nagusiek Ibaizabalen alde bien arteko errepide loturak hobetzea eskatu dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek “Ibaizabalen alde bien arteko mobikortasuna eta errepide bidezko loturak hobetu beharra” autortu dabe gaur Gernikan egin dan osoko bilkuran. PPK aurkeztutako proposamenaren aurrean, Bizkaiko Batzar Nagusiek EAJ-PNVren, PSE-EEren, eta Talde Mistoaren aldeko botoa izan daben mozinoa onetsi dabe, “legealdi honetan helburu hori lortzera zuzendutako jarduketak egin daizan” eskatzeko Foru Aldundiari. EH Bildu eta Podemos taldeak abstenidu egin dira.

Javier Ruiz bozeroale popularrak azaldu dauenez, Errontegiko zubia, alde bien arteko “errepideko lotura bakarra”, “antxinako” azpiegiturea da, eta 1983an eregi zanetik trafikoaren hazkunde “esponentziala” jasan dau. Holan, Aldundiaren datuek erakusten dabenez, “egunean 150.000 ibilgailuren igarotea” jasan daike.

Egoera hori hobetzeko Aldundiak azken hamarkadatan egin dituan proposamenen artean Lamiakoko itsasadar azpiko errepidea, Lutxanako zubia edo Axpeko zubia dagoz, baina “horreetako bat be ez da gauzatu”. Talde popularra, itsasadarraren azpitik tunel bikotxa eregitearen alde agertu da –Erromo eta Santurtzi artean–. Obra hori egiteko 190 milioi euroko aurrekontua aurkeztu zan bere egunean.

Foru Gobernua eusten daben taldeek –EAJ-PNV eta PSE-EE– zehaztu dabenez, popularren mozinoa bat dator Foru Aldundiaren helburuakaz. Izan be, Aldundia “hasi da daborduko” une honetan dagon loturea hobetzeko beharrean. Holan, Irene Edesa jeltzaleak, kontrolako azkenengo osokoa Aldundiak, Errontegiren “ordezko soluzinoak” aurkitzea Foru Gobernuaren “lehentasuneko interesa” dala adierazo ebalu gogoratu dau.

Gogoratu dauenez, “epe luzeko” jarduketatan behar egitea dago aurreikusita, Lurraldeko Errepideen Sektore Planean aurreikusiko diran eta “konplexuak eta kostu altukoak” diran aitatutako hiruak, besteak beste. Gainera, “epe laburreko” jarduketatan be egingo da behar, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko foru diputatu jaunak joan dan hilean Batzar Nagusietan iragarri ebazanetan, adibidez: Kukularrako “estugunea” kentzea edo Gurutzetako trukagunearen ahalmena handitzea, Errontegiko zubiaren ahalmena handitzeko egin daitekezan jarduketaz gain.

EH Bildu eta Podemos taldeek abstentzinoaren alde agertzea erabagi dabe, izan be, inguru horretan mobikortasuneko arazoak dagozala autortu arren, mobikortasun iraunkorreko politiken eta garraio publikoa hobetzen behar egitearen aldeko apustua egiten dabe. Izan be, talde bi horreek adierazo dabenez, dana ez da “zementuan inbertitzen daben” soluzinoetatik pasetan.

BEHERAPENAK AP-68 AUTOPISTAN

Mobikortasunaren arloan, Bizkaiko Batzarrek ez dabe onartu EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena. Proposamen horretan AP-68 autopistaren eskumenak eskatzea eta ordaindu beharreko errepide horretako erabiltzaileei Aldundiak hobariak eskintzea planteetan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

zan. Ekimenak Podemos Bizkaia taldearen aldeko botoak, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen kontrakoak eta Talde Mistoaren abstentzinoa jaso ditu.

Talde guztiak bat etorri dira transferentzia eskatzeagaz, baita PP taldea be, “baten batek eragiketaren kostua bere gain hartzen badau”, 2026an amaituko dan emakidea dagolako, Jesús Isasi popularrak gogoratuazo dauenez, Aznarren Gobernuak, hasiera batean 2012an itzuli behar zan azpiegiturearen ustiapeneko epealdia hamalau urte luzatzea erabagi ebalako.

Taldeen arteko desadostasunak proposamenaren bigarren puntuan heldu dira. Puntu horretan, joan dan urtarrilean A-8an, Supersur izenekoa eta Artxandako tuneletan indarrean sartu zan beherapenen sistema bera ezarteko eskatzen zan. Sistema horrek, gehienez be 30 euro ordainduta ezelango muga barik bidaiatzeko aukerea emoten dau. EH Bildu eta Podemos taldeak, hobari horreek AP-68 autopistara “atoan” zabaltzearen alde agertu diran bitartean, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek, koalizino abertzaleak onartu ez dauen zuzenketa-eske baten bitartez, Aldundiak, Bizkaitik igaroten dan tartean, Foru titulartasunekoak diran ordaindu beharreko Bizkaiko gainerako errepideetan dagon “diru-laguntza errejimen berbera” apliketea proponidu dabe, autopista horren titulartasuna jaso ostean.

EH Bilduk ez dau planteamentu barria onartu. Zalantzan jarri dau une honetan Bizkaian beherapen horreek apliketea “ezinezkoa” danik, ondoko lurraldeak 2012ko bagilaren 1etik, 25 bidaiatik aurrera %50 arteko prezio beherapenak apliketan ditualako. Zigor Isuskizaren berbetan, Bizkaiko eredia “diskriminazinoa” da Hego Uribe eskualdeko biztanleentzat.

Aitor Ibarra EAJ-PNVko ordezkariak adierazo dauenez, Aldundiak egin eban ahalegin bat, aurrekontuetako “300.000 euro” horretara bideratuta, AP 68 autopistan beherapenak eskintzeko, baina Estaduko Administrazinoak baztertu egin eban, “diskriminatzailea” zala esanez. Gainera, jeltzalearen eretziz, Arabako eredia ez da baliagarria, erabiltzaileek hiru finantza erakunderen artean aukeratu behar dabelako operatibea.

EZEZKOA FAMILIA UGARIENTZAKO OHZ-KO BEHERAPENEI

Gernikako saioa Talde Mistoaren eta PPren ekimen bigaz hasi da. Ekimen horreetan, OHZn familia ugarietzako hobariak “berreskuratzea” eskatzen zan. Batzarretan ordezkari txikiena daukan taldeak arauzko aldaketea aurkeztu dau, zergearen %90 arteko salbuespena sartzeko, eta popularrek, arauz besteko ekimen baten bitartez, Aldundiak hobariaren ehuneko bat proponidutea planteau dabe, bizikidetza unidarearen diru-sarrerak eta berau osotzen dauen kide kopurua kontuan izanda.

EAJ-PNV eta PSE-EE, Foru Gobernua osotzen daben eta Batzarretan gehiengoa daukien taldeak, erreforma horren kontra, eta horren beharra daben familiak “diru-laguntzen arautegiaren” bitarteko “laguntzea” jasotearen alde agertu dira, zergadunaren abaguneak kontuan izan barik ondasun higiezina grabau behar dauen zerga baten bitartez izan beharrean.

Talde Mistoaren proposamena ez da onartu, Foru Gobernua osotzen daben EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoa jaso dauelako. Talde Mistoak, PPk eta Podemos Bizkaiak proposamenaren alde botau dabe, eta EH Bildu abstenidu egin da. PP taldearen ekimenari jagokonez, horrek be EAJ-PNV eta PSE taldeetako batzarkideen kontrako botoa jaso dau, Podemos abstenidu egin da eta gainerako taldeek aldeko botoa emon dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ekimen biak eztabaidetan egon diran bitartean, proposamenak aurkeztu dituen taldeek, PPK eta Talde Mistoak, familia ugariak OHZren ordainketan hobariak jasoteko aukerea berreskuratzea defendidu dabe, igazko maiatzean OHZren inguruko arau barria onartu zan arte Bizkaiko arautegian ezarten zan moduan.

Javier Ruiz PPko bozeroaleak azaldu dauenez, familia ugarien Hirukide alkartearen “kexa” jaso ostean, Arartekoak, Bizkaiko arautegi barriaren “aukerea, komenigarritasuna eta justifikazinoa argi eta garbi zalantzan jarten dituan” eta “aurreko 13 urteetan, etenik barik” Bizkaian aplikau zan hobaria “berreskuratzeke beharra azaltzen dauen” txostena egin eban.

PPko batzarkideak adierazo dauenez, hobari hori kentzeak “ez deutso ezelangoko mesederik egiten” biztanleria zahartzearen arazoaren aurrean “erantzunak” emoteko beharrezkoa dan familientzako laguntzari. Gainera, Bizkaiko familia ugariak inguruko lurraldeetakoak baino “egoera txarragoan” geratzen dira.

Foru Gobernua eusten daben talde biek atzera bota ditue proposamen biak, eta zerga hori ordaintzeko laguntzea behar daben familiei “diru-laguntzak” emoteko arlotik lagundu behar jakela adierazo dabe. Holan, Jon Andoni Atutxa EAJ-PNVko batzarkideak, OHZk “ondasun higiezinaren balioa grabetan dauela” adierazo dau, eta ez “ondasun horreen jaubeak”. Holan, OHZ “zerga objektiboa” dala planteau dau, “izaera pertsonala” daben eta “zergadunen abaguneak” kontuan hartzen dituen beste batzuekaz alderatuta, PFEZ, besteak beste. Gogoratu dauenez, PFEZan, 285.000 aitorpenek 153 milioi euro baino gehiagoko beherapenak izan ditue.

Ildo berean, Ekain Rico PSEko batzarkideak esan dau Arartekoak, bere txostenean, ez dauela eskatzen Bizkaia familia ugariarentzako hobaria berreskuratzerik, eta “ez dauela planeetan talde horrentzako ezelangoko iradokizunik”. Ricok gogoratu dauenez, “zergak ordaintzeko laguntzea behar daben” pertsonak, “diru-laguntzen inguruko arautegiaren bidez” jaso daikiez laguntzak, euren ahalmen ekonomikoa kontuan izanda, eta ez “kolektibo jakin bateko kide” izategaitik. Holan, adierazo dauenez, familia ugariarentzat indarrean egoan aurreko hobariagaz, “bardin zan” urtean “20.000 euroko edo 700.000 euroko” diru-sarrerak eukitea.

Oposizionoko taldeen artean, Endika Montes EH Bilduko batzarkidea ados agertu da OHZ aldatzeagaz, diru-sarrerak eta kide kopurua kontuan izango dauen familia ugariarentzako aukerazko hobaria sartzeko. Holan, Udalek “atea zabalik” izango dabe hobari horreen gainean erabagiteko.

Bukatzeko, Asun Merinero Podemoseko batzarkidea hobaria berreskuratzearen eta Udalek “hobari hori zelangoa izan behar dan erabagiteko aukerea izatearen” alde agertu da. Dana dala, “tope batzuk” egon behar dirala eta familiek dituen baliabideak kontuan izan behar dirala esan dau, “behar gehien daukienei” laguntzeko.

ETXEKO ARRETA ZERBITZUAREN FINANTZIAZINOA

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzarrek ez dabe onartu EH Bildu taldearen arauz besteko proposamen bat, azkenengo hiru urteotan menpekotasunaren arloan eskinitako zerbitzuak dirala eta Estatuak Kupoaren bidez Udalei ordaindu behar deutesien dirua Aldundiak aurreratu daian. Koalizinoko abertzaleak planteau dauenez, lehenengo ordainketea 2017ko lehenengo hiruhilekoan egin beharko litzateke, Arantza Urkaregi batzarkideak adierazo dauenez, une honetan dagon zorrean oinarrituta: “6,2 milioi”, 2015ean; “4 milioi”, 2016an; eta “4,4 milioi, 2017an. EH



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bilduren ekimena ez da onartu EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek kontrako botoa emon dabelako, eta aldeko botoa emon dauen bakarra Podemos Bizkaia izan dalako.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek adierazo dabenez, Aldundiak abenduaren 20an “onetsi eban” modu ofizialean zorra, “zorrotzak eta bermean oinarritutakoak” izateko, eta zor hori Gobernu zentralak bere zorra ordaindu ahala likidauko da. Dana dala, Jane Eyre Urkieta jeltzaleak gogoratu dauenez, Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren artean negoziatan ari dan Kupoia izango ez litzateken beste bide batzuetatik kopuru horreek ordaintzeko eskatu eban Foru Aldundiak.

HERRITARREN PARTE HARTZEA AURREKONTUETAN

Bukatzeko, Podemos Bizkaia taldea, 2017ko ekitaldiko Bizkaiko Aurrekontu Orokorren Proiektuagaz erlazionautako herritarren partaidetzarako eta kontuak aurkezteko proposamenagaz heldu da Gernikara. Bere proposamenean, talde moreak “euren eguneroko bizimoduan eragina daben erabagietan” jendearen parte hartzea errazteko zortzi ekimen sartzen ebazan. Proposamena ez da onartu, EAJ-PNVk, PSE-EEK eta Talde Mistoak ezezkoa bozkatu dabelako. PP taldea abstenidu egin da eta EH Bildu izan da Podemosen ekimenagaz bat egin dauen bakarra.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek osotasuneko zuzenketa-eskea planteau dabe, gai horren inguruko “gogoetak eta ekarpenak”, Batzar Nagusietan orain denpora gitxi eratu dan Herritarren Partaidetzaren Azterketarako Batzordean eztabaidatu daitezana. Batzorde horrek datorren martiaren 3an hasiko dau Batzarretan izango dauen ibilpidea, batzordea osatzeko saioagaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

15/02/2017

Las Juntas Generales de Bizkaia piden mejorar las conexiones viarias entre ambas márgenes del Nervión

Las Juntas Generales de Bizkaia han reconocido hoy en el pleno celebrado en Gernika “la necesidad de mejorar la movilidad y las conexiones viarias entre ambas márgenes del Nervión”. A propuesta del PP, el Parlamento vizcaíno ha aprobado una moción, que ha contado con el apoyo de PNV, PSE-EE, y grupo Mixto, para instar a la Diputación Foral a que inicie “a lo largo de la presente legislatura actuaciones dirigidas a conseguir dicha finalidad”. EH Bildu y Podemos han optado por abstenerse.

El portavoz popular, Javier Ruiz, ha explicado que el Puente Rontegi, "la única conexión viaria" entre ambas orillas, es una infraestructura "antigua" y ha sufrido, desde su construcción en 1983, un incremento "exponencial" del tráfico, de manera que, en función de los datos forales, puede llegar a soportar el paso de “150.000 vehículos diarios”.

Entre las propuestas lanzadas por la Diputación en las últimas décadas para mejorar la situación se barajó el subfluvial de Lamiako, el puente de Lutzana o el puente de Axpe, pero "ninguna ha terminado por llevarse a cabo". La formación popular se inclina por la construcción de un doble túnel por debajo de la ría –entre Romo y Santurtzi-, obra que en su día fue presupuestada en 190 millones de euros.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- han precisado que la moción de los populares coincide con los objetivos del departamento foral que "ya ha empezado a trabajar" en mejorar la conexión existente. En este sentido, la juntera jeltzale Irene Edesa ha recordado que, en el último pleno de control, la Diputación ya señaló que es "interés prioritario" del Gobierno foral encontrar "soluciones alternativas" a Rontegi.

Según ha recordado, está previsto trabajar en actuaciones “a largo plazo” como las tres citadas anteriormente, que se contemplarán en la revisión del Plan Territorial Sectorial de Carreteras y que son "complejas y con un elevado coste". Además, se trabajará en actuaciones “a corto plazo” como las anunciadas por el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, el mes pasado en el pleno de control de las Juntas: la eliminación del "cuello de botella" en Kukularra o el aumento de la capacidad del intercambiador de Cruces, además de un posible aumento de capacidad del puente Rontegi. Las dos primeras actuaciones comenzarán a ejecutarse en el año 2018.

EH Bildu y Podemos han decidido abstenerse, ya que, aunque han afirmado compartir la existencia de problemas de movilidad en esta zona, han apostado por trabajar en políticas de movilidad sostenible y en mejorar el transporte público, ya que para estas formaciones no todo pasa por soluciones que “inviertan en cemento”.

DESCUENTOS EN LA AP-68



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En materia de movilidad, la Cámara vizcaína ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu en la que se planteaba la competencia de la autopista AP-68 y la aplicación de bonificaciones a los usuarios vizcaínos de esta vía de pago, como ya hace la Diputación de Araba. La iniciativa ha contado con el apoyo de Podemos Bizkaia, el rechazo de PNV, PSE-EE y PP, y la abstención del grupo Mixto.

Todos los grupos junteros se han mostrado conformes en pedir la transferencia, incluso el PP “siempre y cuando alguien asuma el coste” de la operación, ya que existe -ha recordado el popular Jesús Isasi- una concesión que expira en el año 2026, después de que el Gobierno de Aznar decidiera ampliar catorce años el periodo de explotación de la infraestructura que inicialmente se iba a devolver en 2012.

La discrepancia de los grupos ha llegado con el segundo punto de la proposición en la que se pedía la implantación del mismo sistema de descuentos que entró en vigor en la A-8, Supersur y Túneles de Artxanda el pasado mes de enero, y que permite viajar sin límite de viajes por una tarifa máxima de 30 euros. Mientras que EH Bildu y Podemos han abogado por extender "ya" estos beneficios a los usuarios de la AP-68, PNV y PSE-EE han planteado por medio de una enmienda -no aceptada por la coalición abertzale- que la Diputación aplicara, en el tramo que discurre por Bizkaia, “el mismo régimen de subvenciones” existentes en las vías vizcaínas con peaje tras recibir la titularidad de la vía.

EH Bildu no ha aceptado el nuevo planteamiento. Ha cuestionado la “imposibilidad” de aplicar ahora en Bizkaia estos descuentos cuando el territorio vecino lo lleva haciendo desde el 1 de junio de 2012, rebajas de precio que llegan hasta el 50% a partir de 25 viajes. Para Zigor Isuskiza, el modelo vizcaíno supone una “discriminación” para los vecinos de la comarca de Hego Uribe.

El representante del PNV, Aitor Ibarra, ha señalado que la Diputación ya hizo un intento, incluso con una asignación presupuestaria de “300.000 euros”, para ofrecer descuentos en la AP 68 que la Administración del Estado desechó por “discriminatoria”. Además, para el jeltzale, el modelo alavés no es válido porque obliga al usuario a tener que elegir la operativa entre tres entidades financieras.

NO A LOS DESCUENTOS EN EL IBI PARA FAMILIAS NUMEROSAS

La sesión en Gernika ha arrancado con iniciativas del grupo Mixto y el PP para solicitar la “recuperación” de las bonificaciones en el IBI a las familias numerosas. Mientras que el grupo más minoritario de la Cámara ha presentado un cambio normativo para incluir una exención de hasta el 90% del impuesto, los populares han planteado, a través de una iniciativa no de norma, que sea la Diputación la que proponga un porcentaje de bonificación teniendo en cuenta los ingresos y el número de miembros de la unidad convivencial.

PNV y PSE-EE, los grupos que conforman el Gobierno foral y que cuentan con mayoría en la Cámara, se han opuesto a esta reforma y han defendido que las familias que lo necesiten sean "ayudadas" a través de "la normativa subvencional" y no de un impuesto que debe gravar un bien inmueble sin tener en cuenta las circunstancias del sujeto pasivo.

La propuesta del grupo Mixto ha sido rechazada al contar con el voto contrario de los dos grupos que conforman el Gobierno foral, el PNV y el PSE-EE. Grupo Mixto, PP y Podemos



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaia han votado a favor de la toma en consideración, mientras que EH Bildu ha optado por abstenerse. En el caso de la iniciativa del PP, la misma también ha contado con el rechazo de nacionalistas y socialistas, mientras que Podemos se ha abstenido y el resto ha votado a favor.

Durante el debate de las dos iniciativas, los grupos proponentes, el PP y el Grupo Mixto, han defendido la necesidad de recuperar la posibilidad de bonificar a las familias numerosas en el pago del IBI, tal y como establecía la normativa vizcaína hasta la aprobación de la nueva norma sobre IBI el pasado mayo.

El portavoz del PP, Javier Ruiz, ha explicado que, tras la "queja" de la asociación de familias numerosas Hirukide, el Ararteko emitió un informe en el que "cuestiona de forma nítida la oportunidad, conveniencia y justificación" de la nueva normativa vizcaína y "argumentaba la necesidad de recuperar" la bonificación que se estuvo aplicando en Bizkaia "durante los 13 años anteriores de manera ininterrumpida".

El juntero del PP ha advertido de que la eliminación de esa bonificación hace un "flaco favor" al apoyo a las familias necesario para dar "respuestas" ante el problema de envejecimiento de la población, además de suponer "un agravio" respecto a los territorios vecinos.

Ambas propuestas han sido rechazadas por los dos grupos del Gobierno foral, que han defendido que se debe atender desde el ámbito "subvencional" a las familias que necesitan ayuda para pagar este impuesto. De este modo, el juntero del PNV Jon Andoni Atutxa ha subrayado que el IBI "grava el valor de los bienes inmuebles" y no "quién los posea". En este sentido, ha planteado que el IBI es "un tributo objetivo", frente a otros como el IRPF, de "naturaleza personal", que sí tienen en cuenta "circunstancias de los sujetos pasivos". Según ha recordado, en el IRPF, 285.000 declaraciones se han deducido más de 153 millones de euros.

En la misma línea, el juntero del PSE Ekain Rico ha precisado que el Ararteko no pide en su informe que se recupere en Bizkaia la bonificación para las familias numerosas ni "circunscribe ninguna sugerencia" a este colectivo. Rico ha recordado que las personas que necesitan ser "ayudadas también en el pago de los impuestos" pueden serlo "a través de la normativa subvencional", teniendo en cuenta su capacidad económica y no el hecho de "pertenecer a un colectivo". De este modo, ha advertido de que, con la bonificación anterior para familias numerosas, "daba igual" tener ingresos de "20.000 euros o 700.000 euros" anuales.

Desde los grupos de la oposición, el apoderado de EH Bildu Endika Montes se ha mostrado de acuerdo con modificar el IBI para incluir una bonificación potestativa para las familias numerosas que tenga en cuenta ingresos y número de integrantes, de manera que los ayuntamientos tengan "la puerta abierta para decidir" sobre estas bonificaciones.

Finalmente, la juntera de Podemos Asun Merinero se ha mostrado a favor de recuperar la bonificación y que los ayuntamientos "puedan establecer cómo debe ser". En cualquier caso, ha planteado que debe haber "unos topes" y tener en cuenta los recursos de los que disponen las familias para ayudar a las que "más lo necesitan".

FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE ATENCIÓN DOMICILIARIA

Por otro lado, la Cámara vizcaína ha rechazado también una proposición no de norma de EH Bildu para que la Diputación adelantase a los ayuntamientos el dinero que el Estado debe



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

abonar vía Cupo por los servicios ofrecidos en materia de dependencia de los tres últimos años, en relación al servicio de atención domiciliaria. La coalición abertzale planteaba que el primer pago se efectuase en el primer trimestre de 2017 en base a la deuda que, según su apoderada Arantza Urkaregi, se tiene contraída: “6,2 millones”, en 2015; “4 millones”, en 2016; y “4,4 millones, en 2017. La iniciativa de EH Bildu ha decaído por el rechazo de los grupos de PNV, PSE-EE y PP, y el único apoyo de Podemos Bizkaia.

PNV y PSE-EE han advertido que la Diputación “reconoció” oficialmente la deuda el 20 de diciembre para ser “rigurosos y garantistas” y que la misma se irá liquidando según el Gobierno central vaya ingresando la deuda, si bien la jeltzale Jane Eyre Urkietta ha recordado que la Institución foral pidió dichas cantidades por medio de otras vías que no fuera vía Cupo que está en proceso de negociación entre los Gobiernos central y vasco.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN LOS PRESUPUESTOS

Por último, Podemos Bizkaia llegaba a la villa foral con una propuesta de participación ciudadana y rendición de cuentas en relación con el Proyecto de Presupuestos Generales de Bizkaia del ejercicio 2017. En su propuesta, el grupo morado incluía ocho iniciativas para facilitar la participación de la gente “en aquellas decisiones que repercuten en su vida diaria”. La propuesta ha decaído por el rechazo de PNV, PSE-EE y grupo Mixto. El PP se ha abstenido y sólo EH Bildu se ha sumado a la iniciativa de Podemos.

PNV y PSE-EE habían presentado una enmienda a la totalidad para que las “reflexiones y aportaciones” en relación a esta cuestión se dirimiesen en la recién creada Comisión de Estudio sobre Participación Ciudadana de las Juntas Generales, que iniciará su recorrido parlamentario el próximo 3 de marzo con su sesión constitutiva.